

## Xedapen Orokorrak

### INDUSTRI, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

Zk-460

AGINDUA, 1996ko azaroaren 21ekoa, Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, igogailuetako sarreretan solairu bakoitzari dagokion adierazgarria jartzeko arauak ematen dituena.

Azaroaren 8ko 2291/1985 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen jasotzeko aparatuei eta euren mantenimenduari buruzko Arautegia, zein garatua izan baitzen, besteak beste, ITC-MIE-AEM-1 Jarraibide Tekniko Osagarriaren bitartez. Jarraibide Tekniko Osagarria 1987ko irailaren 23ko Aginduaz onetsi zen eta harez geroko hainbat Aginduz aldatu.

Aipatutako ITCaren 15.1 idaztiaren arabera, plakak, errotuluak eta igogailua erabiltzeko argibideak erraz ikusteko eta ulertzeko moduan egon behar dira, eta horietan zeinuak eta sinboloak erabiliko dira. Bai plakak eta errotuluak, bai zeinuak eta sinboloak tinkoak eta material iraunkorrekoak izango dira, eta begibistan egongo dira igogailua kokaruta dagoen tokiko hizkuntzan idatzita; beharrezkoa bada, hizkuntza batean baino gehiagotan.

Bestalde, aipatu den ITC beraren 15.9 idaztiak «Geraleku bakoitzaren solairu-adierazgarria» izeneko tituluaren dioenez, inskripzioak eta seinaleak ikusterrazak izan behar dira eta barruan doanak kabina zein solairutan gelditu den ikusi ahal izateko modukoak.

Aurreko lerroaldeetan ezarrita dagoen legez, arlo honetan aplikatu beharreko arautegietan aurrikusita dago zenbait kabinaren posizioa zein den adierazten duen seinale bat jarri behar dela kabina barruetan. Beharrezko arautu hori oinarritzat hartuta, igogailuaren sarreran ere solairu-adierazgarria jartzea komeni dela ikusi da, batez ere gutxi ikusten dutenen mesedetarako.

Euskal Herriko ONCEko Lurralde Ordezkaritzak emandako informazioa kontutan hartuta, erraz antzemateko moduko solairu-adierazgarria diseinatu da: neurri egokikoa, zenbaki argitsuak dituena, kontraste onekoa eta Braille sisteman idatzita, baita altuerliebean ere, Braille sistema ezagutzen ez dutenentzako.

Bestalde, igogailuei buruzko 95/16/CE Zuzentzaian eta Batzordearen 95/216/CE Gomendioan jasota dagoenaren arabera, neurriak hartu behar dira ezinduek igogailuetan bakarrik ibili ahal izateko.

Euskal Autonomi Elkarteko Estatutuak autonomi elkarte honi industriaren alorrean ematen dion eskumen eskusiboa kontutan hartu da.

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, AGRICULTURA Y PESCA

Nº-460

ORDEN de 21 de noviembre de 1996, del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca, por la que se regula la instalación de indicadores de planta en los accesos a ascensores.

Mediante Real Decreto 2291/1985, de 8 de noviembre, se aprueba el Reglamento de Aparatos de Elevación y Manutención de los mismos. Reglamento que es desarrollado, entre otras, por la Instrucción Técnica Complementaria ITC MIE AEM-1, aprobada por Orden de 23 de septiembre de 1987 y modificada por Ordenes sucesivas.

Según el apartado 15.1 de la referida ITC, «Todas las placas, rótulos e instrucciones de maniobra deben ser claramente legibles y de fácil comprensión (mediante la ayuda de signos y símbolos). Estos deben ser no desgarrables, de materiales duraderos, situados bien a la vista y redactados en la lengua del país donde se encuentre el ascensor o, si es necesario, en varias lenguas).

Por otra parte, el apartado 15.9 de la misma ITC, establece, bajo el título «Identificación de los niveles de parada», que las inscripciones o señalizaciones deben ser suficientemente visibles y deben permitir a las personas que se encuentren en la cabina conocer en que nivel de parada se encuentra la cabina detenida.

En la actualidad tal como se establece en los párrafos anteriores la reglamentación aplicable en esta materia contempla, en ciertas condiciones, la instalación de un indicador posicional en el interior de la cabina. Partiendo de esta exigencia reglamentaria se ha considerado necesario instalar un indicador en la zona de accesos del ascensor que facilite el conocimiento de la planta a la que se ha accedido, sobre todo para personas con falta de agudeza visual.

Teniendo en cuenta la información aportada por la Delegación Territorial de la O.N.C.E. en el País Vasco, se ha diseñado un indicador que puede ser reconocido fácilmente, al contar con un tamaño adecuado, alta luminancia de los números, buen contraste y sistema de identificación en Braille además de en altorrelieve, para aquellas personas que no conocen este sistema de lectura.

Por otra parte, la Directiva 95/16/CE sobre ascensores y la Recomendación de la Comisión 95/216/CE contemplan que se deben adoptar medidas para facilitar la accesibilidad a los ascensores por parte de las personas minusválidas solas.

Teniendo en cuenta la competencia exclusiva en materia de Industria que el Estatuto de Autonomía para el País Vasco otorga a esta Comunidad Autónoma.

Indorioz, aipaturiko lege-manuak eta gainerako xedapen orokor eta baterakorrak aztertuta, hauxe

#### XEDATU DUT:

##### 1. atala.— Xedea eta aplikazio-eremua.

Solairu bakoitzeko igogailuko sarreretan solairu-adierazgarria jarriko da, non dagokion solairua adieraziko baita zerbait.

##### 2. atala.— Solairu-adierazgarriak non kokatu.

a) Igogailuaren sarrerako markoaren janbaten eskuin aldean jarri behar da adierazgarria solairu bakoitzean, eta ezinezkoa balitz, janbaten ertz-ertzean, atearen plano paraleloan. Ateak erdi-automatikoak direnatan, atea irekitzen den aldean jarriko da.

b) Sarrerako lurretik 150 cm-tara kokatu behar da tinko.

##### 3. atala.— Adierazgarrien ezaugarriak.

a) Karaktereak diseinu arruntekoak eta trazu garbi-koak izango dira. Zenbaki bat baino gehiago erabili beharra dagoenetan, tarte egokia izan behar dute.

b) Karaktereen gutxieneko altuera 4 cm-koa izango da eta zabalera, berriz, altueraren %15etik %20ra bitartekoa.

c) Informazioa Braille sisteman ere adieraziko da.

d) Karaktereak altuerliebez nabarmenduko dira justu trazuaren erdian, mm bateko gutxieneko altuera eta zabalera altuerliebez.

e) Kontraste ona eta argitasun handia lortzeko, berde iluneko atzealdea eta hori argiko karaktereak erabiliko dira.

f) Material iraunkorrekoak eta erregaitzak izango dira.

g) Erabil daitezkeen pinturak eta tintak behar bezala itsatsiko dira, gatzaren korrosio-eragina jasateko ego-kiak izango dira, eta ez dira degradatuko eguzki-argia-ten eraginez.

h) Ez dute ez distirarik ez itsualdirik sortuko.

i) Behar bezalako markoa edukiko dute eta ertzak ez dira zorrotzak izango.

j) Honako karaktere hauek erabiliko dira:

Atariko solairua identifikatzeko «0» zenbakia erabiliko da.

Ataritik beheko solairuak identifikatzeko «-» zeinua erabiliko da solairuari dagokion zenbakiaren aurre-rik.

Ataritik gorakoetan solairu bakoitzari dagokion zen- baki jarriko zaio. Solairu-arteak eta solairu nagusia alde, hurrenez hurren «EP» eta «PR» letra larriak jarriko dira.

##### 4. atala.— Ereduentzako baimena.

Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren oniritzia

En su virtud, de conformidad con las disposiciones citadas y otras de general y concordante aplicación,

#### DISPONGO:

##### Artículo 1.— Objeto y ámbito de aplicación.

En cada una de las plantas de acceso a los ascensores se colocará un indicador con el número de piso.

##### Artículo 2.— Ubicación de los indicadores.

a) El indicador se colocará en la jamba del marco exterior de la puerta del piso en el lado derecho del embarque, o si no fuera posible lo más próximo al borde de la misma, y en un plano paralelo al de la puerta. En el caso de instalaciones con puertas semiautomáticas, se colocará en el lado de la apertura de la puerta.

b) Deberá estar firmemente fijado en su emplazamiento a una altura media de 150 cm. sobre el suelo del acceso.

##### Artículo 3.— Características de los indicadores:

a) Los caracteres deberán ser de diseño sencillo y con trazos claros. Cuando se necesite utilizar más de un número, deberán tener una separación adecuada.

b) La altura de los caracteres será de al menos 4 cm. y el grosor del trazo será de un 15 a un 20% de su altura.

c) Deberán contener la información en el sistema Braille.

d) Los caracteres deben remarcarse con un altorrelieve centrado en el trazo y con una altura y anchura máxima de 1 mm.

e) Para conseguir un buen contraste y alta luminancia, se utilizará el color verde oscuro como fondo y el amarillo pálido para los caracteres.

f) Deberán ser fabricados con materiales duraderos y resistentes al fuego.

g) Las pinturas o tintas utilizadas deberán tener una adherencia adecuada y tendrán características de resistencia a la corrosión salina y a la degradación por la acción de la luz solar.

h) No deberán producir reflejos ni deslumbramientos.

i) Dispondrán de un marco adecuado y no presentarán aristas ni bordes cortantes.

j) Se utilizarán los siguientes caracteres:

La planta de embarque se identificará con el número «0».

Las plantas inferiores a la de embarque, se identificarán con el signo «-» delante del número de la planta.

Las plantas superiores a la de embarque, se identificarán con el número correspondiente. En caso de existir entre-planta y planta principal, se identificarán con las letras mayúsculas «EP» y «PR» respectivamente.

##### Artículo 4.— Autorización del modelo.

Los modelos de indicadores de piso deberán obtener

duki behar dute adierazgarriren ereduak. Oniritzia izateko Lurralde Ordezkarieratariko batean aurkeztu behar da eskabidea, honako hau adierazita duela:

1.- Letra-tipoa eta ezaugarriak.

2.- Erabilitako materialak. 3. ataleko f eta g idazarietako beharkizunak betetzen direla egiaztatzen duten agiri guztiak erantsiko zaizkio eskabideari.

3.- Adierazgarrietariko baten plano mugatua eta denen erreprodukzioa, 1:1 eskalan.

4.- Adierazgarriaren ereduak.

Onetsi aurretik, Euskal Herriko ONCEko Lurralde Ordezkaritzari eskatuko zaio ereduari buruzko txostena, non adieraziko baitu solairu-adierazgarria zuzen lotzen ote den 3. ataleko a, c, eta h idazarietan jasotakoari, eta beharrezko jotzen diren aprobak egingo dira.

#### HIGARRIZKO XEDAPENA

Arautegi honetako azken xedapenetan ezarritakoaren ondorioz, aginduan xedaturakoa betetzera behartuta ez dauden igogailuen kasuan, aholkatu egiten da arauturako solairu-adierazgarriak jartzea.

#### AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*— Ahalmena ematen zaio Industri, Energi eta Meategien Administrazioarako Zuzendaritzari, agindu hau bete eta aplikatu dadin behar diren jarraibideak emateko.

*Bigarrena.*— Honako agindu hau 1997ko uztailaren 1etik aurrera jartzen diren igogailu berriei aplikatuko zaie.

*Hirugarrena.*— 1997ko uztailaren 1era arteko epea dago lehengo igogailu erabilera publikokoak egokitze hau da, agindu honetan ezarritako arauetara egokitzeko.

*Laugarrena.*— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 1996ko azaroaren 21a.

Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburua,  
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

la autorización del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca. Para su obtención deberán presentar en alguna de las Delegaciones Territoriales, una solicitud en la que se indique:

1.- Tipo de letra y características.

2.- Materiales utilizados. Se acompañarán todos los certificados acreditativos que justifiquen el cumplimiento de los apartados f y g, del artículo 3.º.

3.- Plano acotado de uno de los indicadores y reproducción de todos ellos, a escala 1:1.

4.- Muestras del indicador.

Para la autorización del modelo, se recabará un informe de la Delegación Territorial de la Organización Nacional de Ciegos (O.N.C.E.) en el País Vasco en el que se indique la idoneidad del indicador a lo señalado en los apartados a, c y h del artículo 3.º y se realizarán los ensayos que se consideren necesarios.

#### DISPOSICIÓN ADICIONAL

Para todos aquellos ascensores, que en virtud de lo establecido en las disposiciones finales de esta norma, no les sea de aplicación el contenido de la misma, se recomienda la instalación de los indicadores que se regulan.

#### DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*— Se faculta a la Dirección de Administración de Industria, Energía y Minas para dictar las Instrucciones necesarias para la ejecución y aplicación de la presente Orden.

*Segunda.*— Esta Orden se aplicará a los ascensores de nueva instalación que se pongan en servicio a partir del 1 de julio de 1997.

*Tercera.*— Los ascensores de uso público existentes, disponen hasta el 1 de julio de 1997, para adaptarse a lo establecido en la presente Orden.

*Cuarta.*— La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su completa publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de noviembre de 1996.

El Consejero de Industria, Agricultura y Pesca,  
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

\* Decreto 1983

SUPRESIÓN BARREBAS ARQUITECTÓNICAS // el 18

Establece los asc. que son de Pública

Concurrencia